



Irakaslearen gidaliburua (zirriborroa)

5

Firin-faran, airea dantzan!

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 6. maila)

TXANELA 3: BOSGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

“FIRIN- FARAN, AIREA DANTZAN!”

Proiektua: Laborategi txiki bat antolatzea airea eta haizea aztertzeko eta azterketen emaitzetatik ateratako ondorioekin horma-irudiak egitea.

Unitatearen sekuentzia nahiz arloz-arloko edukiak aldeztetik ezagutzeko irakur ezazue ikasnorabidea.

ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak eta bake hezkuntza.	Elkartasuna. Ardurak. Besteen izaera eta itxuraren onarpena eta errespetua.
Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza	Airearen kutsadura.

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Igarkizunak. <i>Xabier Etxaniz</i> . Olerkiak. <i>Joxean Ormazabal</i> . Ipuinak: “Haizea eta eguzki amandrea” <i>J.M. Olaizola</i> “Txiliku”. Igarkizunak: “Txiliku”. Ipuin literarioak: “Suzko zapatak eta Haizezko sandaliak” <i>Ursula Wolfel</i> .
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestia: “Airea behar dugu” <i>Joxean Ormazabal</i> eta <i>Imanol Urbieta</i> , “Olatu berri” <i>Kilometroak 2004</i> , “Haize hegoa” <i>Mikel Laboa</i> .
Ingurumena	Elkartasun jolasa. Euskararen aldeko ospakizunak.
Arte plastikoak	“Haizearen orrazia” <i>Eduardo Chillida</i> .

Bibliografia euskaraz:

Zientziarekin jolasten, Ttarttalo.

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartek garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurumena-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartek eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 3

IKASLEAREN LIBURUA - 5. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	159
15		<i>Airea behar dugu</i>	17	173
30		<i>Haize hegoa</i>	27	183
32		Artea eta haizea	28	184
35		<i>Entzunaldia</i>	29	185
37		<i>Olatu berri</i>	30	186
46		<i>Amastu zerura begira (bertsoa)</i>	34	190

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Aurreikuspen-estrategiak landu eta haurrak motibatzeke asmoz, liburuaren azalaren behaketa eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntz funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

Hasteko izenburuari erreparatuko diogu:

- *Zer adierazi nahi digu izenburuak?* Izenburu gisa dugun esaldi honen esanahia argitzen saiatuko gara. Ondoren, airearekin zerikusia duten edota airea hitza duten beste esamolde batzuk aipatuko ditugu: airean bidali (presaka), airean eduki (urduri), airean egon (zalantzan)...

Firin-faran euskaraz sarri erabiltzen den esamoldea denez, honen erabilpena orokortzen saiatuko gara, hau da, esamolde hori beste testuinguru batzuetan erabiltzen, adibidez: "Hitzak firin-faran botatzen ditu horren ahoak".

Ondoren, irudiari erreparatuko diogu hor dauden elementuak euren artean izan dezaketen erlazioaz jabetzeko hauei buruz dakigun guztia aipatuaz.

Azkenik, gaiaren inguruko galdera egingo diegu:

- *Zer uste duzue landuko dugula gai honetan?*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

2. Komikia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.

Komikia irakurtzen hasi aurretik izenburuari erreparatuko diogu eta honen inguruan elkarrizketa sortuz, aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu eta iragartzeari ekingo diogu.

- *Zer adierazi nahi digu izenburuak tximeletak hegan egingo duela esatean? Zein tximeleta motaz ari dira? Nola zenekiten kometa zela? Zuek aireratu al duzue inoiz kometaren bat? Noiz? Non? Zaila edo erraza da? Zer baldintza behar izaten dira kometa aireratzeko? Zer uste duzue gertatuko dela komikian?*

Ondoren, ikasleek bakarka irakurriko dute komikia. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun, beraz eman iezaiezue behar beste denbora hori sakonki behatzeko.

Gero, taldean, komikiaren inguruko elkarrizketa sortuko dugu eta Tough-en hizkuntz funtzioak martxan jarriko ditugu.

- *Kleo eta Jexusmai etxera datoz hegazkinez. Zuk bidaiatu al duzu inoiz hegazkinez? Noiz? Nola? Gustuko al duzu? Zergatik? Hegazkina beste garraio mota bat da, baina ez da besteak bezain beste erabiltzen, zein uste duzu izan daitekeela honen arrazoa? Zergatik egin daitezke bidaiak jakin batzuk hegazkinez bakarrik? Hegazkinek tona asko pisatzen dute eta hala ere aireratu egiten dira eta zerutik bidaiatu, nola azalduko zenuke zure hitzekin zeri esker egiten duen hegaz?*

- *Lehenengo binetan, Maider eta Xabier eztulka ari dira, gaixorik al daude neba-arrebak?*
- *Kleo eta Jexusmai dirudienez, Amazoniatik bueltan datoz. Ba al dakizu non dagoen? Ekar ezazue gelara mapa bat eta koka ezazue. Zer dakizue Amazoniari buruz?*
- *Zeri buruz ari dira hitz egiten Kleo eta Jexusmai hegazkinean? Zuen ustez, zertara joan dira Amazoniara? Zein lan mota egitera?*
- *Gure pertsonaiak hondartzara doaz, baina ez daramate ez bainujantzirik ezta hondartzara eramaten den bestelako tresneriarik, orduan zertara doaz hondartzara? Noiz joan daiteke zure ustez hondartzara? Hondartzak hainbat ekintza egiteko aukerak ematen du urte sasoiaren arabera, aipa ditzatela zein eta noiz egin daitezkeen. Zuek ba al daukazue hondartzara joateko ohiturarik? Noiz? Norekin? Zer egiten duzue bertan? Hondartzuri hondartzan hainbat ekintza egiten ari da jendea, aipa dezatela hauetariko bakoitza eta hauei buruz dakiten guztia.*
- *Xarpak aukeran hondartzan siesta egitea erabaki du, Morganek bainua hartzea, zergatik uste duzu Xarpak ez duela bainurik hartu? Eta gure pertsonaiek? Maiderrek tximeleta egarri zela esan du eta baita berak bainatzeko gogo zuela ere, egia al da hori zure ustez? Orduan zergatik esan du?*
- ...?

Solasaldiaren ostean, komikiko pertsonaien banaketa adostu eta talde txikitan ozeneko irakurketari ekingo diete ikasleek, hizkuntzaren baliabideak lantzeko asmoz. Komenigarria da ikasleei gogoraraztea, arreta berezia jarri beharko dietela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...), ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain doinuaren garrantzia azpimarratuz.

3. Aurre-ezagutzak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.

Hasteko, tarte bat emango diegu ikasleei orrialde horretan agertzen diren jarduerak irakurtzeko, hausnartzeko eta osatzeko. Gero, talde handian jardueren inguruko elkarrizketa sortuko dugu.

Ohar bezala aipatu, airearen eraginez dabiltzan edo mugitzen diren 9 elementu idazteko tokia jarri dugu jarduera horretan, gehiago edo gutxiago egon daitezke, baina irekita utzi dugu eztabaida sortzeko. Aprobetxatu aukera ikasleekin hitz egiteko eta nolabait adierazteko, edozein dela ere egiten ari garen jarduera edo lana, erantzuna ez dela mugatu behar espazio jakin batera. Orientagarria izaten da espazio hori eta gerta daiteke erantzuna, erabiliko den espazioa baino handiagoa edo txikiagoa izatea. Horregatik garrantzizkoa, erantzuna ondo hausnartzea da, espazioarena bigarren mailan geratzen da. Jarri adibideak: hainbat kontroletan erantzuna idazteko toki gutxi dutenean zer egin dezaketen... Bestalde, azken jarduerari dagokionez, bila ezazue energia eolikoari buruzko informazioa hainbat iturritan; liburu, entziklopedia, hiztegi, internet etab. Horrez gain, galde iezaiezue horrelako sorgailurik ikusi duten inoiz, bizi diren tokian edo inguruan, non dauden, zergatik dauden kokatuta toki horretan, etab.

4. Igarkizunak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 66. or.

Xabier Etxanizen bost igarkizun irakurtzeko tarte emango diegu ikasleei. Hasi aurretik komeni da ikasleei adieraztea bost igarkizun hauen aukerako erantzunak haizea eta airea direla. Ondo irakur ditzatela eta bakoitzaren erantzuna zein den ondo pentsa dezatela, gero aukeraketa justifikatu beharko baitute ozenki talde handian. Lau dira haizeari buruz ari direnak, eta bakarra aireari erreferentzia egiten diona.

Haizea denez nagusi igarkizun hauetan, haizea hitza erabiltzen duten esamolde eta esaerak biltzen, eta esanahia argitzen saiatuko gara gure erranak erran saila pixkana handitzen joateko. Hemen dituzue adibide batzuk: “Haizea buruan, ibili munduan”, “Norat haize, harat aise”, “Nora haizea hara lainoa”, “Haizea norat, kapa harat”...

5. Proiektuaren aurkezpena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Talde handian proiektua zertan datzan irakurri eta argitu ondoren, taldetxoak egingo ditugu. Jarraian, proiektuaren gaia den haizearekin zerikusia duen edozein liburu edo material aipatuko dugu, hauek lortu ahala txoko zuria hornitzen joango gara, edozein informazio behar dugunean eskuragarri izan dezagun.

6. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.

Gaiaren sekuentzia tematikoa zein den jakiteko, ingurumena arloari dagokion lehenengo zutabea irakurriko dugu. Ondoren, eman iezaiezue ikasleei tarte bat, binaka, irakur eta komenta dezaten beste arloetan ere zer den ikasiko dutena. Gero, ikasleek aukera izango dute, unitateari orriz orriko gainbegirada bat emateko, garapena nondik nora doan ikusteko.

Ez ahaztu, ikasnorabidea ikasleen ikasketa prozesuaren autoerregulaziorako tresna dela eta unitatean murgildu ahala, behin baino gehiagotan etorri beharko duzuela bertara, jarduera bakoitzean hainbat arlotan lantzen diren edukien berri izatearekin batera ikasleek euren ikaskuntza-prozesuaren kontzientzia izan dezaten.

7. Amazoniako oihanaren suntsipena

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 67. or./6. lan-koadernoa, 21. eta 22. or.

Istoriotxo errazago jarraitzeko, ikasleei aipatu irakurriko duten Amazoniako oihanaren suntsipenari buruzko azalpen-testutxo, Jexusmaik Kleori bidaia egin aurretik bidali ziona dela, bertan dagoen arazoari buruzko informazio gehiago izan zezan. Eman tartetxo bat ikasleei testua bakarka irakurtzeko eta ondoren, lan-koadernoko ideia nagusia eta paragrafoen izaerari buruzko jarduerak ulertzeko eta burutzeko. Bukatzean,

talde handian berrikusiko dugu egindako jarduera, aukeraketak justifikatuz. Gogora iezaiezue, argudiatzeko, esaldi kausalen egitura zuzena erabili behar dutela (–elako). Bukatzean, nahi izanez gero, aukera polita izan dezakezue gai honi buruzko informazioa bilatzeko, aldizkarietan, egunkarietan, interneten, etab. Ohar bezala aipatu nahi dugu, sarritan entzuten delako, Amazoniako oihanaren suntsipenak ekarri dezakeen kalterik handienen artean gure planetako oxigeno falta dagoela. Baina, Amazonian sortzen den oxigenoa bertan kontsumitzen da eta, beraz, zikloa itxia da. Kalterik nabarmenenak beste batzuk dira; espezien desagertzea, luraren berotzea, eta abar.

8. Laborategirako aholkuak: laburpena

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.

Ez ahaztu, unitate honetako bloke berri bat hastera goazela, beraz, komeni da ikasnorabidera joan-etorria egitea.

Ondoren, ikasleek laborategia martxan jartzeko Kleoren aholkuak bakarka irakurriko dituzte eta gero ideia nagusia azpimarratuz, testuaren laburpena idatziko dute. Bukatzean, ikasleek idatzitako laburpenaren berrikuspena egingo dute. Gero, talde handian laburpenak irakurri eta zuzenak diren eztabaidatuko dugu, hau da, bertan idatzitako esaldiak benetan testuaren ideia nagusiak diren edota ideia jakin baten xehetasunak. Honen ostean, zotz egingo dugu jakiteko zein taldek egingo duen panela horko informazioarekin. Behin erabakia hartu ostean, informazio hori kartoi mehe batean idatziko du talde horrek eta lehenengo paneltxoa osatu eta plastifikatu, gelan, edota laborategia muntatuko duzuen tokian, denen begi-bistan jartzeko. Panela egitearen lan hau beste une baterako utz daiteke, irakasleak ikusiko du noiz den momentu egokia.

9. Laborategia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 11. or.

Hasteko, elkarrikketa sortuko dugu laborategia zer den eta bertan egiten denaz taldean hitz egiteko. Jarraian, ikastolako laborategia ikustera joango gara eta bueltan berriro ere elkarrikketa sortuko dugu, aurretik hitz egindakoa gogora ekartzeko, eta nolabait alderatzeko, edota esandakoa osatzeko. Bukatzeko, laborategia gelan non eta nola antolatuko dugun eztabaidatu eta adostu beharko dugu, zein espazio erabiliko dugun horretarako etab.

Hor behean, laborategia martxan jartzeko irakasleentzako aholkuak dituzue, liburuan ikasleei agertzen zaizkienak baino zehatzagoak.

LABORATEGIRAKO AHOLKUAK ETA ARGIBIDEAK

Laborategiko lana, talde-lana da, hau da, nahiz eta ardurak banatu egin behar diren, kide guztiek parte hartuko dute esperimentuan, kolaboratuz, denen artean egindako lanaren baturak egingo baitu posible esperimientua gauzatzea.

*Ikerketekin hasi baino lehen...

- Argi izan behar duzu zein den jarraitu beharreko prozedura, hau da: Zer egingo duzun/Nola egin behar duzun/Zertarako.
- Ikerketan erabili behar dituzun materialak eta tresnak aldeztu aurretik eskuratu behar dituzu.

Esperimentatzen ari zaren bitartean...

- Behaketak arretaz eta neurketak zehaztasunez egin ondoren datuak bildu.
- Ikerketan zehar, garbitasuna ezinbesteko baldintza da, tresnak erabili ondoren garbitu eta jaso egin behar dira hurrengoan ere garbi topa ditzazun.
- Momentu oro irakaslearen aholku eta oharrak jarraitu. Gauza bera liburuan datozenekin. Arazo bat sortzen denean, irakasleari dei egin.

Esperimentatu ostean...

- Ondorioak atera eta taldean trukatu: Kide bakoitzak bere iritzia azaldu eta arrazonatu eta besteena ere entzun.
- Ondoren, iritzia bateratuaz ondorio bakarra idatzi.

10. Erranak erran

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka/Talde txikian

Materiala: Irakaslearen liburua, 11. or.

Ikasleek bakarka erranak erran atala irakurtzeko aukera izango dute eta gero, talde handian erran horien esanahiari buruz mintzatuko gara. Bukatzeko, bikoteka edo talde txikitan aukeratutako errana adierazten duen egoera antzetzeari ekingo diogu.

11. Aire eta bizidunak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakaslearen liburua, 12. eta 13. or.

Bloke berria hasiera goazenez gogoratu ikasnorabidera joan-etorria egitea, bai hasi aurretik eta baita bloke honi dagozkion jarduerak osatu ondoren ere, lehendik irakurrita zutenari bestelako zentzua emango baitiote.

Bi orrialde horietan, atmosferaren definizioa, funtzioa eta osagaiak buruzko informazioa ematen da. Ikasleek bakarka informazio hori irakurri, ulertu eta jarduerak osatu beharko dute; kontzeptu-mapa bidez adierazi informazioa, atmosferaren osagaiak datuekin ziklograma osatu eta galderak erantzun. Jarduera osaturik dutenean, taldean, elkarriktatu sortuko dugu horren inguruan, azalpen-testuak irakurri eta jarduerak zuzenduz informazioaren ulermena ziurtatuz. Bukatzeko, zotz eginaz egokitu zaien hiru taldeek, kontzeptu-mapa, atmosferaren definizioa eta ziklograma kartoi meheetan egin eta panelak prestatuko dituzte.

Atmosferaren definizioa buruz ikasi eta ahoz adierazteko eskatuko diegu ikasleei. Definizioa laburra da, eta pixkanaka-pixkanaka, memoria lantzeko, definizio labur batzuk buruz ikasteko eskatuko diegu. Orrialde hauetan dauden beste bi klipak ikasteko modukoak izan daitezke baina ez derrigorrez buruz. Beren hitzetan ahoz adierazten saia daitezela, lehenik, ideiak ondo ulertu dituztela ziurtatu ondoren, buruz ikas ditzakete.

12. Bizidunek airea behar

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.

Hasteko, talde handian, lehenengo jarduera irakurriko dugu eta baita esperimendu bidez frogatu ere. Adierazi hurrei behin egitearekin nahikoa dela, arriskutsua dela horrela jolastea. Ondoren, ikasle bakoitzak, egindako esperimentuan gertatutakoa idatziz adieraziko du bere koadernoan. Gero, hurrengo esperimentuari dagokion argibide-testua irakurriko dugu eta ikerketa egiteko materiala nork eta non lortuko dugun adostuko dugu. Jarraian, ikerketa egin aurretik, gertatuko denaren inguruko hipotesiak osatzen hasiko gara. Behin materiala lortu ondoren, ikerketa abian jarri eta egun batzuetan haren jarraipena ere egingo dugu, ikusitakoa apuntatuz. Egunduen buruan, esperimendu honetatik ateratako ondorioak ahoz eta taldean adierazi ondoren, ikasle bakoitzak bere koadernoan idatziko ditu.

Gogoratu, ikusitakoa idatziz adierazteaz gain, marrazkiak edota argazkiak ere egin ditzakezuela. Hauekin eta ateratako ondorioekin panelak osatu. Panel hauek dagokion taldeak osatu beharko ditu.

13. Diktaketa: Airea

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Liburu, 15. or./CD-ROMa

Egindako esperimentuaren behaketari esker ateratako ondorioak berresteko eta osatzeko ondoren duzuen diktaketa egingo diezue ikasleei. Bukatzean, bideratu ezazue autozuzenketa edota zuzenketa konpartitua, gogora ekarriz ortografia eta puntuazio markei dagozkien arauak.

AIREA

Edozein tokitan bizi garela ere, airez inguraturik gaude. Airea ezin dugu ikusi ezta esku artean hartu ere, baina mugitzen bada senti dezakegu.

Gau eta egun, bizidun guztiok airea arnasten dugu etengabe. Arnasa hartu gabe minutu gutxitan hilko ginateke.

Eskerrak gure planetak atmosfera duen!

Gero, talde txikitan nahiz talde handian, orrialde horretako jarduerak egingo ditugu eta bukatzean, taldean, puntuazio marken garrantziari buruzko elkarriketa sortuko dugu.

Gogoratu CD-ROMean hainbat ariketa dituzuela puntuazio markak lantzeko.

14. Olerkiak

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Binaka

Materiala: Irakurgaiak 3, 68. or.

Puntuazio markez gain, irakurketan doinuak, intonazioak, erritmoak, hau da, baliabide prosodikoek duten garrantziaz hitz egingo dugu talde handian. Gero, irakurgaietan dituzten bi olerkiak irakurriz, irakasleak irakurketa dramatikoaren eredua emango die ikasleei, jarraian, ikasleek, binaka nahiz talde txikitan entseatu dezaten.

15. Ingelesa: breathing air (arnasketan, haizea hartzen dugu)

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.

Unitate honetan, airearekin zerikusia duen esperimientua egingo dugu ingelesez. Gorputza mugitzerakoan arnasaldiak nola azkartzen diren ikusteko, bikoteka, geldirik, ibilian eta korrika gure arnasaldiak kontatuko ditugu kronometro baten bidez eta taula batean jasoko ditugu emaitzak eta haietatik ondorioak atera.

You will need:

- A stopwatch or watch with a second hand. (Or one for each pair if you allow the pairs to work more autonomously)

Procedure:

When you go into class, you can open the window and take a deep breath of fresh air.

- Ooh! That's better. We need some more air; some more oxygen in the classroom.

Continue with the topic.

- What am I breathing? (Air, gas, oxygen)*
- O.K. now I'm sleeping (mime sleeping) Am I breathing? Yes I am.*
- Now I'm walking. (Mime walking) Am I breathing? Yes, I am.*
- Now I'm running (mime running on the spot) Am I breathing? Yes.*
- So, do I need more air when I sleep or when I run? What do you think?*

Help them to formulate their answers and give their reasons.

Then continue with the book activity.

- Shall we do an experiment to find out? Turn to page 16 of your book. What do you need? (A stopwatch, a chart, a pencil, a partner)*
- And what do you have to do?*

Take a pupil to model the activity with step by step.

- I start the stopwatch. I count the breaths, 1, 2, 3... I stop the stopwatch and I write down the number of breaths.*
- Now my partner is going to walk (on the spot) fast for one minute, like this (demonstrate) ready, steady, go. After one minute I say 'stop' and I count the breaths during the next minute. And I write down the breaths here, in 'walking fast' (show in the book)*
- And finally my partner is going to run (on the spot) for one minute, like this (demonstrate) Ready, steady, go. After one minute I say 'stop' and I count the breaths during the next minute. And I write down the breaths here, in 'running' (show in the book)*
- Then we change places and do it again.*
- O.K. do you understand? O.K.*

Put them in pairs or let them choose a partner.

- *Has everyone got a partner? Who is going to start the counting? We are all going to do it together. Are you ready? Start counting..... stop counting. Write the result.*
- *Now walking fast. Are you ready to walk fast? No counting yet. Walk..now..... Stop walking. Start counting the breaths now..... Stop counting. And write the result.*
- *Now running. Are you ready to run for one minute? O.K. Start running now..... Stop running. Start counting breaths now.... stop counting. Write the result.*
- *O.K: now change over.*
- *O.K. compare your results with other partners.*

Let them look at their results and comment on them.

Bring the discussion to the big group.

- *How many breaths did your partner take while not moving/walking/running?*
- *So when do you take more breaths/breathe faster? And why?*
- *So what are you going to write here in the book?*

Elicit what they can write e.g. you need more air/oxygen etc. And let them try to write it down negotiating with their partner/s.

Remind them to tell their tutor about the experiment they have done.

- *O.K. you have to tell your tutor about what you did and what you found out O.K.!*

Comments:

If you have the right facilities, time, number of pupils, you can go to the playground and really run, walk etc.

Bukatzeko, dagokion taldeak esperientziatik ateratako ondorioak panel batean idazteari ekingo dio.

16. “Airea behar dugu”, gaiaren abestia.

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or./CDa, 24. pista

Gaiaren abestia den “Airea behar dugu” irakurtzeko eta ulertzeko tartetxo bat emango diegu ikasleei. Gero, abestiaren letrak adierazten duena kontuan izanik, keinu jakin batzuk aukeratu eta adostuko ditugu, CDarekin batera abesten dugun bitartean gorputz keinu edo mugimenduekin batera abesteko.

17. Musikako jarduerak

Lan egiteko era: Ikus musikako gida

Materiala: Musikako lan-koadernoak.

18. Arnas aparatua eta biriken funtzionamendua

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. eta 19. or.

Hasteko, talde handian esperimentua irakurriko dugu zer egin behar den argitzeko asmoz. Gero, hiru lagunek taldeak egingo ditugu eta taldekide bakoitzak zer material ekarri behar duen adostuko dugu. Material guztia gelara ekarritakoan esperimentuari ekingo diogu. Bukatzean komenigarria da, irakasleak arnasketa aparatuen barruan biriken funtzionamendua, diafragmarena etab. azaltzea eta esperimentuarekin erlazionatzea, ikasleek hobeto uler dezaten.

Ondoren, eta talde handian, 19. orrialdeko irudiari behatuz eta azalpen-testua irakurri, arnas aparatua, odolaren zirkulazio-aparatuekin batera, gure gorputzean betetzen duen funtzioaren garrantziaz jabetzen saiatuko gara. Testu honen irakurketa egin ahala, irakasleak argibideak eman ahala, ulertu den ala ez ziurtatzeko, komeni da galderaren bat egitea. Lagungarri izango zaizue arnas aparatua eta zirkulazio-aparatua irudikatuta dauden horma-irudiren bat gelara eramatea ikasleei azalpenak emateko orduan.

Oharra: Irudian odol motak adierazita daude, baina kontuz, hauen zirkulazioa hainbat hoditatik ematen baita, zirkulazio motaren arabera. Normalean CO₂-a, benetatik garraiatzen da, baina zirkulazio txikian arteriatik doa, eta benatik berriz arteria-odola doa, O₂-a, biriketarik pasatzerakoan oxigenatu egin den odola eta bihotzera daramana. Beraz kontuz, bereizi ondo hodia (arteria/bena) eta odol mota (arteria-odola, bena-odola), kontzeptuak nahasteko arriskua egon baitaiteke.

Azalpenak eta argibideak bukatzean, eman aukera ikasleei bakarka irakurri eta irudiari behatuz prozesua asimilatzeke. Gero, binaka jarrita, irudia aurrean dutela ikaskide bati ahoz azal diezaiotela. Irudiaren laguntzaz, prozesua ahoz adierazteko gauza badira ulertu duten seinale izango da.

19. Ipuinaren egitura lantzen: *Globoan igo nahi dut!*

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 20. eta 21. or./6. lan-koaderno, 23. eta 24. or./CD-ROMa.

Hasteko, tartetxo bat emango diegu ikasleei ipuina irakurri, uler dezaten eta jarduera osa dezaten. Gero, talde handian irakurriko dugu ipuina, haren egiturari erreparatuko diogu eta batez ere garapenari; zein diren bertan adierazten diren ekintzak, zein den jarraitzen duten ordena, nola dauden elkarren artean lotuta eta zein denbora antolatzaile erabiltzen diren lotura horiek egiteko. Gero, ikasleek bakarka, lan-koadernoko 23. eta 24. orrialdeetan dauden jarduerak osatuko dituzte, jarraian talde handian zuzenduko ditugunak.

Gogoratu CD-ROMean hainbat direla denbora antolatzaileak lantzeko dituzuen jarduerak.

20. Ipuina ekoizten

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: 6. lan-koadernoa, 25., 26. eta 27. or.

Ipuin bat idatzi aurretik lana planifikatu behar dela gogoraraziko diegu ikasleei, eta talde handian ipuina ekoizteko planifikazio-lanari ekingo diogu. Hasteko, xedea adostuko dugu, hau da, ipuin hori norentzat eta zertarako idatziko dugun erabakiko dugu. Gero, ideiak asmatzeari ekingo diogu. Ideiak sortzeko, hainbat estrategia jarrai ditzakezue; liburuetan, ipuinetan edota egunkarian irakurritako edozein artikulutan begiratu, binomio fantastikoak osatu... Hainbat ideia proposatuko ditugu denon artean eta denak arbelean apuntatuko ditugu. Ikasle bakoitzak, gehien atsegin dituenak aukeratu eta bakarka bere ideiak ordenatu eta antolatuko ditu, lan-koadernoko 25. orrialdean duen eskema erabiliz, eta horretan oinarrituz bere ipuina ekoitziko du.

Ipuina garatzeko orduan, gogora iezaiezue ikasleei, “ipuien mundua” txokoan duten informazio guztia erabil dezaketela, hala nola, hasierako formulak, deskribapenak egiteko informazioa, etab. Ipuina bukatzean, berrikuspena egin dezatela egoki ikusten dituzten zuzenketak egin ditzaten. Nahi izanez gero, edizio lana egin dezakezue eta norbaiti oparitu ipuin hori.

Gogora ekar dezagun zer den binomio fantastikoa. Hartu bizitzan erabat normala den elementu “A” bat, hartu bizitza normalean erabat normala den elementu “B” bat, eta sarritan, A eta B elementuak elkartuz, erlazio fantastikoak sortuko zaizkigu. Adibidez: A= Elefantea B=Titarea. Elefantea eta titarea esanez gero ez dugu erlazio fantastikorik sortzen, baina bai titarea bezain txikia zen elefantea esanez. Erlazio fantastikoaren formulazio soilak ipuin bat irudikatzen garamatza, “Titarearen neurriko elefantea”.

21. Mugitzen ari den airea: haizea

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.

Hasteko, ikasleei tarte bat emango diegu esperimentera irakurtzeko eta nondik nora doan ulertzeko. Gero, elkarriketa sortuko dugu esperimenteraren inguruan eta hipotesiak formulatuko ditugu sugari gertatuko zaionaren inguruan. Ondoren, ikasle bakoitzak bere suga eraiki beharko du. Suga prest dutenean, esperimentera burutu, eta galderak idatziz erantzun ditzatela euren liburuan. Gerta daiteke berogailuak behar beste bero ez ematea eta esperientzia ondo ez ateratzea, hala balitz, eman ikasleei etxean frogatzeko aukera. Ondo ateratzen bada, suga aire beroaren eraginez, gora igoko da. Ondorioa frogatzea lortu ostean, talde handian, gizakiak aire beroari esker egin dituen eta egiten dituen gauzei buruzko elkarriketa sortuko dugu.

22. Aulkiak aldatzen: elkartasun jolasa.

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.

Beti bezala elkartasun jolasaren muina zein den argituko dugu eta ondoren jolasa bera zertan datzan azalduko dugu.

Jolaskide kopuruari bat kendu, eta kopuru hori adina aulki jarriko ditugu zirkulu batean, barrurantz begira. Zotz egin eta egokitu zaion jokalaria zirkuluaren erdian jarriko da, zutik, eta gainerako jokalaria aulki banatan eseriko dira. Erdiko haurrak, eserita dauden bi hurrek, gutxienez, betetzen duten ezaugarri bat pentsatu eta adierazi beharko du. Adibidez: “Ilea beltza duten lagunak” edo “Ile luzea duten lagunak” edo “Praka urdinak dituztenak” edo “Neskak”. Ezaugarri hori duten jokalaria altxatu egingo dira, eta libre geratu den beste aulki baten bila joango dira; baina ezin dute gertuko aulki bat hartu, urrunen dutena baizik. Ezaugarria betetzen duten guztiak daude mugitzera behartuta. Egoera horretaz baliatuta, erdiko jolaskidea aulki batean esertzen saiatuko da, eta aulkirik gabe geratzen denak beteko du hurrengo txandan erdikoaren eginkizuna.

Jolas honen helburu nagusia komunikazioa eta talde kohesioa lantzea da. Garapen afektiboa (mugimendu arinaren gozamena), soziala (ahozko komunikazio, talde kohesioa), intelektuala (arreta) eta motriz (gorputzaren koordinazio orokorra, erreflexuak eta mugimendua) landuko dira jolas honen bidez. Bukatzean beti bezala talde elkarrizketa egingo dugu esperientziari buruz hitz egiteko.

- *Zer nolako sentimenduak izan dituzue jolasten aritu zareten bitartean? Dibertigarria izan al da jolasa?*
- *Zerbaitek harritu al zaitu jolas honetan? Arreta mantendu al duzue erdikoak aginduen ematen zituenean?*
- ...?

23. Argibide-testua

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 6. lan-koaderno, 28. eta 29. or.

Ikasleek unitateko hurrengo jarduerako esperimendua egin ostean, argazkietan oinarrituaz, argibide-testua idatzi beharko dutenez, aldezturik zer den eta nola dagoen egituratua jakin beharko dute. Horregatik, unitateko beste argibide-testuak aztertuz, lan-koadernoan test moduan azaltzen den jardura osatu beharko dute, hura ondo eginez gero, argibide-testuari buruzko azalpentxoak osatuko dute. Bukatzean, taldean testu mota honen funtzioa eta ezaugarriak aipatu eta ikasleek izan ditzaketen zalantzak argitu.

24. Aire beroa eta aire hotzaren portaera

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.

Hasteko ikasleek bakarka goiko klipa irakurriko dute eta talde handian ulertu duten berraztertuko, behar bezala erantzuniko dute.

Ondoren, tartetxo bat emango diegu ikasleei esperimendua irakurri, taldetxoak osatu eta lortu beharreko materiala nork ekarriko duen adosteko. Materiala esku artean dugula, esperimendua egingo dute eta urrats bakoitza bete ahala, euren unitatean ondorioak idatziko dituzte. Bukatzean, talde handian elkarrizketa sortuko dugu esperimenduaren inguruan, eta amaitzeko dagokion taldeak ondorioekin proiekturako panela osatuko du.

25. Argibide testua idaztean

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 6. lan-koadernoan, 30.or./CD-ROMa

Bakarka lan-koadernoan, unitateko 23. orrialdean agertzen zaizkien argazkiek adierazten duten ikerketaren argibide testua ekoitzi beharko dute, urrats bakoitza bi erataraz adieraziz, zenbaki bidez eta antolatzaileak erabiliz.

26. Oxigenoa, ikerketa

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.

Sua egiteko oxigenoa behar-beharrezkoa dela frogatzeko, ikerketatxo bat egingo dute ikasleek talde txikitan, baina aldeztu aurretik, prozedura irakurtzeko tartea izango dute eta baita taldetxoak egin eta bakoitzak ekarriko duen materiala adostekoa ere.

Esperimentuak burutzeko egunetan gerta dakizueke ikasleren batek, bere arduragabekeriagatik edo agian etxekoengatik, bere ardurapean zegoen eta ekarri behar zuen materiala ez ekartzea. Aurreikusi itzazue horrelako egoerak eta aprobetxa ezazue arduraren ideia lantzeko. Talde-lanean jardutean taldekide bakoitzaren arduragabekeriak zer kalte ekar diezaiokeen taldeari etab. Ikasleen arduragabekeria barik, etxekoena bada, orduan sentsibilitatez joka ezazue. Badaezpada zuek material gehiago gelara ekartzea komenigarria da, beti ere horrelako arazo batek sor ditzakeen kalteei aurre egiteko asmoz. Materiala esku artean dutenean, esperimentuari ekingo diogu.

Oharra: Ikerketa hau egiteko erabiliko den edalontziak kandela osoa barruan sartzeko modukoa izan behar du, oxigenorik inondik sar ez dadin. Bestela, gerta daiteke esperimentua ondo ez ateratzea. Hala ere, ikerketa bat ongi ez ateratzeak badu bere alde ona. Oso garrantzitsua baita materiala egokia izateaz gain, urratsak zehaztasunez jarraitzea, bestela ez baita ondo ateratzen. Hala gertatuko balitzazueke, aprobetxa ezazue egoera, horri buruz hitz egiteko eta akats horietatik ikasteko.

Esperientzia burutu eta jarduerak osatu ostean, taldean, esperimentu hau kontuan izanik, suaren aurrean hartuko genituzkeen neurriei buruz mintzatzeko, elkarrikeria sortuko dugu. Egokitu zaion taldeak, ondorioak paneletan idatziko ditu.

27. Ikastetxea hustea

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Gela erdibituta/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 69. or.

Hasteko, tartetxo bat emango diegu ikasleei irakurgaiak bakarka irakur eta uler dezaten. Gero, talde handian, ikastetxean sua piztuz gero haren hustea azaltzen duen testua irakurriko dugu, urratsez urrats, urrats bakoitza irakurri ondoren, horri buruzko argibideak etab. adierazteko elkarrikeria sortuz. Bukatzean, ikasleek, berriro irakurriko dute testua, urratsez eta aholkuez ondo jabetzeko. Gero, sute-simulazioa egingo dugu. Hau bi erataraz egin dezakezue. Bat, gela guztiak hustuketan parte hartuz eta bukatzean esperientziari buruz (zailtasunak, ekintza okerrak, ondorioak...) hitz egiteko elkarrikeria sortuz. Edo bestela, gela erdiak simulazioan parte hartuz eta ikasle jakin batzuk haien behaketa zuzena eginaz, bukatzean esperientzia baloratzeko eta kritikatzeko, beti ere, hobetzeko asmoz. Ondoren, gelaren beste erdiak egingo du simulazioa eta azkenean guztien artean nola joan den ebaluatuko duzue.

28. Metodo zientifikoa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.

Talde handian metodo zientifikoa zer den jakiteko irudi eta azalpenak dituen testua behatu eta irakurriko dugu. Gero, denon artean, metodo zientifikoari dagokion eta normalean betetzen ez ditugun urratsak zeintzuk diren identifikatuko dugu, eta baita argudiatu ere, gure ustez, zergatik ez ditugun urrats hauek betetzen.

29. Ipuina irakurri aurretiko jarduerak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.

Hasteko, ikasleek bakarka, irakurriko duten ipuinaren inguruko galderak erantzungo dituzte. Galdera hauek ipuinean gertatuko denaren ingurukoak dira, hau da, nolabait ikaslea, gertatuko dena iragartzera eta idaztera bultzatzen dute. Ikasleak jarduera hau bukatu ahala talde txikitan jarriko dira eta erantzunak elkar jarriko dituzte, bakoitzak egin dituen hipotesiak zein diren ikusteko. Ikasleek idatzitakoa talde txikietan ahoz adierazten badute, ahozkoatasunean trebatzeko aukera polita izango dute.

Bukatzean, elkarriketa sortuko dugu, ipuinean agertzen den EOLO hitzaren inguruan.

30. Haizeak eta eguzki amandrea

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 70. orrialdetik 73.era/Ikaslearen liburua, 27. or.

Gaiari dagokion ipuina bakarka irakurtzeko aukera eman ondoren, taldean irakurriko dugu. Irakurketa honetan, irakurketa elkarkariaren hiru rol jarriko ditugu martxan. Bata irakurlearena. Irakurlearen papera betetzeak besteek ulertzeko moduan irakurtzea eskatzen du, hau da, doinua, erritmoa (ez abiadura), geldiuneak etab. zainduz. Gogorarazi esandakoa ikasleei, honen garrantziaren kontzientzia izan dezaten. Orrialde bakoitza ikasle batek irakur dezake. Beste rol bat, ikertzailearena izango da, edozein ikasle izango da ikertzaile eta hitz bat ulertzen ez duenean, eteteko aukera izango du. Hirugarren rola, kazetariarena izango da, orrialde bakoitza bukatzean ikasle jakin batek irakurritakoaren laburpena egingo du. Ulermenaz gain ahozko adierazpena ere lantzen ari gara hemen.

Ipuina irakurri ondoren, talde elkarriketa sortuko dugu, aurreikuspen eta apustuen inguruan hitz egiteko. Gero, hitz-erota martxan jarriko dugu. Gogoratu, iritzia adierazteaz gain, hitz-errotan prozesuak garrantzia handia duela, hau da, txandak errespetatzea, jarrera, parte hartzea, etab. guztiak baitira ziklo honetako edukiak.

31. Abestia: “Haize hegoa”

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: CDa, 25. pista

Talde handian, abestia entzun eta haren erritmo eta doinuaz gozatuko dugu. Gero, letra diktatuko ikasleei, euren koadernoan kopia dezaten.

HAIZE HEGOA

Haize hegoa,
gau epela,
ilargiaren argi,
mutxurdiak leihoetan,
teilatuan katu bi,
bide ertzean zenbait kanta
gau erdiz arnoari,
Hargaineko sorgin zaharrak
keinuka ilargiari.

Bukatzean, arbelean idatzi eta autozuzenketa bideratuko dugu. Gero, letra argitzeari ekingo diogu, ulertzen ez ditugun hitzen esanahia, hasieran, ondorioztatzen, eta ondoren, hiztegia begiratzuz argitzen. Honen ostean, taldean eta CDarekin batera abesteari ekingo diogu.

32. Haizearen mugimendua erabiltzen zuten antzinako garraioak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.

Talde handian, irudiak behatu eta aireko eta itsasoko garraioek denboran zehar izan duten bilakaera adierazten duten testutxoak irakurriko ditugu. Gero, elkarrikerak sortuko dugu izan duten bilakaerari buruz eta, gure ustez, izango duten bilakaerari buruz hitz egiteko. Bukatzean, folio batean, 3000. urtean euren ustetan aireko eta itsasoko garraioak nolakoak izango diren plastikoki adierazteko proposamena luzatuko diegu. Egindako marrazki hauek gero, ahoz aurkeztu ditzakete gelakideen aurrean, hauei buruzko azalpenak ematearekin batera adierazpena lantzeko asmoz.

33. DVD

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: DVDa

34. Artelana: Haizearen orrazia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.

Artelan hau Donostiako itsasertzean kokaturik dago. Eskultura monumental bat dela esan daiteke non, paisaia, itsasoa, haizea eta artistaren obrak bat egiten duten. Obra honetan soinua era natural batean sortzen da. Itsasoa, indarrez, hodi handi batean sartzen da eta hodi horrek bere goiko aldean zazpi hodi txikiago ditu. Itsasoaren indarrak presionatuta haizeak hodi horietatik gora igotzerakoan nota bat ateratzen du hodi bakoitzean: do, re, mi, fa, sol, la, si. Eskultura honetan haizea soinua sortzeko erabiltzen da, hau da artea eta haizea elkarrekin jolasean dabilta.

Irteera egiteko aukerarik baduzue, eraman ditzatela haurrek margoak eta arkatzak, eta baita paperaren azpian jartzeko karpeta bat edo, eta saia daitezela hainbat angelu aztertuz obra honen marrazkia egiten. Olatuak badaude, entzun dezatela hodiekin ateratzen duten soinua.

35. Eta nola margotu edo marraztu ikusterik ez dugun haizea?

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Haizea ikusterik ez badugu ere, berak mugitzen dituen gauzak mugimenduan ikus ditzakegu. Ez dugu berdin ikusten basoa edota zuhaitz bat haizerik ez dabilenean eta dabilenean, gauza bera gertatzen zaigu itsasoarekin, haizeak sortzen ditu olatuak, haizeak altxatzen du olatuen aparra airean... Zintzilik dagoen arropa ere ez dugu berdin ikusten haizea dagoenean eta ez dagoenean.

Elkarrizketa izan gai honen inguruan, eta eskuratu haizea hainbat eratan “marraztuta” edota “margotuta” azaltzen duten irudiak, koadroak, komikiak... Behatu marrazkiak nola dauden antolatuta.

Egin ezazue zuzeneko behaketa kalean. Haur bakoitzak haizearekin mugitzen ari den elementu baten edota askoren marrazkia/margoa egiten saiatu behar du. Nahi baduzue, marrazki bera egin haizerik gabe, nolakoa izango litzatekeen ikusteko.

36. Entzunaldia

Kudeketak mota: Talde handian

Materiala: CDa, 26. pista

Naturako elementuen soinuek piano doinuarekin batera sortutako doinu lasaigarria eskaintzen digun entzunaldi honekin ez dugu gure konpositoreen txokoa martxan jarriko. Entzunaldi hau lantzearen helburu nagusia irudimena lantzea, eta era berean gure gorputzaren adierazpenaren bidez emozioak potentziaztea denez, orainoan, jarduerak burutzeari ekingo diogu zuzenean.

- Entzuketa aktiboa

Beraz, hasteko, musika entzungo dugu lurrean etzanda eta begiak itxita. Ondoren, musikak iradokitakoaren inguruan mintzatuko gara.

- Zer sentimendu izan dituzue musika entzuten zenuten bitartean? Gustura egon al zarete musika entzutean? Zer irudi etorri zaizkizue burura? Zein naturako soinu entzun dira? Eta zein instrumentu?

-...?

- Gorputz adierazpen librea

Musika estimulazio elementu modura harturik, sortutako emozioak gorputzaren adierazpenaren bidez adieraztea eta honen erabilpena bultzatzea da nahi duguna jardueraren bidez. Horretarako, ikasleen begiak estali egingo ditugu zapi batekin eta haizea direla esango diegu, hondartza batean dabilatzala eta batzuetan elementu batzuekin jolasean ibiltzen direla, hau da, gustuko dutenean adibidez, kometari mugimenduan lagunduz, eurek ere kometa bihurtzen direla. Beraz, batzuetan haizea eta besteetan naturako zein bestelako elementuak izango direla. Bukatzean jardueraren errepikatuko dugu baina orainoan zapiarik gabe.

- Elkarrizketa

Bukatzean, emozio eta sentimenduen inguruko elkarrizketa sortuko dugu.

- *Nola sentitu zarete jarduera begiak itxita egin dugunean? Zein sentimendu bizi izan dituzue? Zein elementu izan zarete haizeaz gain? Zein elementu izatean izan zarete zoriontsuen? Zergatik uste duzu izango dela horrela? Zein sentipen izan da nagusi jarduera bukatzean?*

- *Nola sentitu zara gauza bera zapi gabe egitean? Zergatik uste duzu izan dela horrela? Zein sentimendu izan da nagusi bukatzean? Zein izan da zapiarekin edo zapi gabe egitearen alderik handiena?*

- Sentimenduen liburuxka

Bukatzean, jarduera honetan sentitutako emozioen koadernotxo egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, ikasle bakoitzak berak sentitutako sentimendua hitzen eta marrazkiaren bidez adieraziko du, sentimendu bakoitza folio batean. Folio horretan sentimendua eta haren azalpen edo deskribapen txikia idatziko du bere hitzekin eta irudi figuratibo nahiz abstraktu batekin ilustratuko du berak aukeratutako koloreekin. Bukatzean gela guztiko lanak batuko ditugu eta liburuxka osatu. Liburuxkaren lehenengo orrian entzunaldian erabili dugun musika zein izan den eta egin duguna laburbilduta idatziko dugu. Liburuxka fotokopiatu haur bakoitzak ale bana etxera eraman dezan. Haizearen mugimendua adieraziaz hainbat koloretako marrak (tenperaz) eginez, bere liburuxkaren azala egin dezake haur bakoitzak. Marrak erabili orde, hostoak, euria haizearekin, itsasoko olatuak, oihalak... ere egin ditzakezue. Baina betiere, haizearen norabidea markatzen duten marren presentzia bermatzen saiatuz.

37. Haizearen bestelako erabilpenak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or./DVDa

DVDan jasotako ahozko eta irudi bidezko informazioarekin ikasleek bakarka unitatean aurkeztzen zaizkien fitxen antzekoak osatu beharko dituzte.

Bukatzean Argitxok aipatutako gaiari buruz hitz egiteko elkarrizketa egingo dugu, urtero euskararen alde ospatzen diren jaien inguruan hitz egiteko. Lehenengo elkarrizketa honetan ikasleek jai hauei buruzko informazio askorik ez dutela ikusiz gero, informazioa hainbat iturritan bilatuko dugu; etxean galdetuz, liburuetan, aldizkarietan etab.

Jarduera honek bi helburu ditu, bata informazio bilatzea eta aukeratzea, gero, gelakideei ahoz adierazteko eta bigarrena eta garrantzitsuen, ohituraz parte hartzen dugun hainbat jairen (Kilometroak, Ibilaldia, Araba euskaraz, Nafarroa oinez, Herri urrats, euskararen eguna...) zergatiaren berri izatea eta haien garrantziaz jabetzea. Bildutako informazioarekin egin itzazue panelak eta aukera izanez gero, zuen ikastetxeko pasilloetan jarri, beste ikasleek ere, informazio horren berri izan dezaten.

38. Abestia: “Olatu berri”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 27. pista

Gaia aitzakia, eta aurreko jardueran izan dugun hausnarketa soziolinguistikoa bide, 2004ko Kilometroetako abestia entzungo dugu. Nahi izanez gero, diktaketa bidez edo bestela fotokopiatuta, eman iezaiezue ikasleei abestiaren letra, musikarekin batera abesteko aukera izan dezaten. Bukatzean hitz egin ezazue haren leloaren inguruan.

- Zer adierazi nahi du abestiak “Itsaso zahar, olatu berri esaten duenean”?

Zer da itsaso zaharra? Eta nor edo zer olatu berria?

Aipa ezazue olatu berri horren parte direla euretariko bakoitza eta euskarari dagokionez, euren erantzukizuna izango dela haizeak altxa duen olatu berri horren indarra.

39. Haize-errota eraikitzen

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or.

Unitate honetan, teknologiako jarduera bezala haize-errotatxo bat eraikitzea proposatzen zaizue. Horrelakoetan egiten ohi ditugun urratsak jarraituko ditugu: irakurri eta ulertu, materiala bildu etab. Errota hau eraikitzeak bere zailtasuna du, beraz, gure proposamena gela guztiaren artean bakarra egitea edo bestela taldeka bat egitea da.

40. Haizezko musika tresnak

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 3, 74. or.

Aireak musikan duen garrantziaz jabetzeko, irakurgaietako azalpen testutxoak bakarka irakurtzeko eskatuko diegu ikasleei. Ondoren, elkarrizketa sortuko dugu irakurri dena ulertu dela bermatzeko. Gero, euskal tresna zaharrenetakoak direnetatik (txulubita eta gari-zuztarra) bat aukeratu eta eraikitzeko proposatuko diegu. Ikasleren batek etxean galdetuz, beste airezko instrumenturen bat eraikitzen jakingo balu, hura egiteko aukera emango genioke, eta baita, gelan, nola eraikitzen den ahoz adierazteko eta haren soinua nolakoa den erakusteko aukera ere.

41. Igarkizunak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 75. or.

Irakurgaietan dauden igarkizunak irakurri, ulertu eta asmatzeko tartea emango diegu ikasleei. Igarkizunen erantzunak hauek dira: belauntzia, haize errota, kandela, kea, flauta eta puzkerra. Gero, ikasleek txandaka ahoz, ozen eta doinu egokiz, igarkizun bakoitza irakurri eta erantzunak taldean elkar jarriko ditugu aukera posibleen inguruan eztabaidatuz. Bukatzean, nahi izanez gero, gaiarekin zerikusi duten beste elementu batzuekin igarkizunak asmatzera jolastu dezakegu.

42. Txisteak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 76. or.

Ikasleek, bakarka, txisteak irakurriko dituzte, gozatzeko. Gero, talde handian, txisteen inguruko hausnarketatxo bat egin dezakegu: txiste bakoitzaren ironia zein den azpimarratzen saiatuko gara, zerk eman dion txisteari grazia edo umore puntua, alegia.

Bestetik, puntuazio markei (elkarrizketa adierazten duen gidoia, galdera-marka, harridura-marka...) so egiteko parada ona dugu hau. Ikustarazi, txistea ondo ulertzeko eta ondo kontatzeko oso garrantzitsua dela behar bezala idatzita egotea (puntuazioa markak, ortografia...). Ondoren, tarte bat emango diegu ikasleei puntuazio ikurrei eta ortografiari arreta handia jarritz berriro ere txisteak irakur ditzatean, jakinik, gero, txiste hauetariko baten diktaketa egingo zaiela beren koadernoan zuzen idatz dezaten. Diktaketa bukatzean, berrikuspena eta autozuzenketa bultzatuko ditugu.

Bukatzeko, nola ez “txisteen unea” saioari tarte egingo diogu elkarri txisteak intonazio eta keinu egokiak erabiliaz kontatuz.

43. Haizeak kalteak sor ditzake

Lan egiteko era: Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.

Jarduera honen helburua, ikasleek, talde txikitan, tifo, zikloi eta urakanei buruzko informazioa bilatzea, aukeratzea eta laburki baina erraz ulertzeko moduan idaztea da. Informazio bilaketaz gain, taldean lana egitea ere eduki eta helburu bezala hartzen dugu, taldean erabakiak hartzea, idatzi behar dena adostea, etab. Lau laguneko taldetxoak egingo dituzte eta lan hau burututa daukatenean, taldekide bakoitzak, galdera bati dagokion erantzuna bere hitzekin eta talde handian, ahoz adierazi beharko du.

Bukatzen duzuenean, elkarrizketa sortu dezakezue talde-lanaren inguruan, jakiteko denek hartu duten parte, erabakitze orduan denen iritzia kontuan hartu den ala ez, etab.

Gogoratu zuen proiekturako panela osatzea.

44. Irakurzaletasuna: “Suzko zapatak eta haizezko sandaliak”

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.

Orain arte ez bezala, irakurzaletasunari dagokion ipuina luzea eta kapituluduna da. Jarduera honen helburua, ikasleek bikoteka kapitulu bat irakurtzea eta euren hitzekin gelakideei kontatzea da. Beraz, jarduera honetan irakurketa (ulermena) landuko dugu, motibazioa ere hor egongo da, gero gelakoei kontatu beharko baitiete kapitulu horretan gertatutako eta nolabaiteko protagonismoa izango baitute. Ahoz kontatu behar dutenez, ahozkoztatuna behatzeko aukera ere izango dugu. Bestalde, badu jarduera honek nolabaiteko zailtasuna, bien artean kontatu behar baitute kapitulu bera. Beraz, bien artean adostu egin beharko dute zer kontatuko duen bakoitzak. Litekeena da ikasleek ez jakitea nola egin banaketa hau, horregatik irakasleak gela guztiari berak kontatu duen kapituluaren eredu bezala erabiliz, lan hori egiteko estrategia azaltzea komeni da. Nola? Bada, hasteko, kapitulu horretan gertatzen diren ekintzarik garrantzitsuenak zerrendatuaz eta ondoren, haren banaketa eginaz. Bestalde, adieraz iezaiezue ikasleei,

zerbait kontatzen dugunean ez dugula, ipuina dagoen bezala eta den-dena kontatzen, nolabaiteko aukeraketa egiten dela eta batzuetan azaltzeko modua ere liburukoa barik, norberarena erabiltzen dela. Horregatik, ikasleetariko batek bere erara kontatzen badu eta zatiren baten elipsia egiten baldin badu, bere bikoteak errespetatu egin beharko du. Gerta daiteke ikasleren batek garrantzitsua den eta ipuina ulertzeko ezinbestekoa den ekintzaren bat ez kontatzea eta honek istorioa ez ulertzea eragitea, hala balitz, normalena da, kapitulua kontatzea bukatzean entzuleriak galderaren bat egitea. Aprobetxa itzazue horrelako aukerak, ahozketasunaren estrategiak eta edukiak lantzeko, dena ez da kontatu behar, baina badira derrigorrean kontatu beharreko ekintza batzuk gauzak behar bezala ulertzeko. Gaia aprobetxatuaz jendearen gaizki-ulertuek ekartzen dituzten haserreak ere elkarriketa gai modura landu ditzakezue.

- *Zerbait gaizki azaltzen baduzu, edo behar beste informazio eman gabe, gerta daiteke ondokoak ez ulertzea, informazioaren zati bat falta duelako eta horrek bere ondorioak izaten ditu...*

Ipuin osoa bukatzen dugunean, ipuineko gertakizunen inguruan hitz-errota antolatuko dugu. Hitz-errotan, gogora eta azpimarra iezaiezue ikasleei hurrengo puntuen garrantzia:

- Hitz-errota hasi baino lehen bakarka egiten duten hausnarketaren garrantzia.
- Hausnartutakoa paperean idatzi behar dutela.
- Paperean idatzitako ideiak ordenatzearen garrantzia.
- Proposamenak adierazteko hainbat modu daudela.
- Hitza hartzea eta txandak errespetatzea oso garrantzitsua dela.
- Ideiak argi eta garbi adieraztearen garrantzia, eta esandakoa berriz ez errepikatzearena.
- Iritzi kontrajarrien onarpena eta errespetua.
- ...

Ez ahaztu hitz egiten ari garen gaia bezain garrantzitsua, edo agian garrantzitsuagoa, dela jarduera honen prozedura eta estrategiak barneratzea. Aurrera begira, edozein dela hitz egin beharreko gaia, ikasleek euren iritzia modu zuzenean adierazteko gauza izatea lortzen joan behar baitugu.

45. Airearen kutsadura

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or.

Talde handian, airearen kutsadurari buruzko azalpen-testua irakurriko dugu. Testu honen irakurketa, era partekatuan egingo dugu eta irakurketa elkarkaria praktikan jarritz. Hiru rol edo hiru irakurketa-estrategia landuko ditugu modu esplizituan. Irakurlearena, jakintsuarena eta kazetariarena. Beraz, testua irakurriko dugu, baliabide prosodikoei kasu eginaz, honek ahalbideratuko baitu ulermenaren zati bat. Ulertzen ez den hitz bat agertzen den bakoitzean irakurketa eten egingo dugu eta hitz horren esanahia testuinguruari begiratzuz ondorioztatzeko gauza ez bagara, hiztegian begiratzuz argituko dugu. Eta, bukatzean irakurritakoaren laburpena egiten saiatuko gara, edo bestela, irakurritakoa geure hitzekin adierazten. Bada testu honetan landu daitekeen beste rol bat, jakintsuarena. Rol hau ikasleei zailagoa egiten zaienez, irakasleak bideratu beharko du elkarriketa bidez.

- *Ea gai garen jakintsuaren rola betetzeko eta informazio hau, beste informazio batekin erlazionatzeko. Kutsadura hitza aipatzen da gai honetan, airearen kutsadura. Zer gehiago kutsatzen dugu ohituraz gizakiok? Ura... Zerekin? Zergatik? Ba al da horri aurre egiteko modurik? Zein? ...?*

Azalpen-testu honen irakurketa beraz, honela egingo dugu, lehenengo irakurketa ikasleek eurek bakarka, gero estrategia guztiak aplikatuz talde handian, eta bukatzeko berriro ere bakarka. Azken irakurketa honen ostean, ikasleei galdetuko diegu ea orain testua hobeto ulertzen duten, erantzuna baiezkoa bada, esan iezaiezue, horiek direla testu bat ulertzeko jarraitu beharreko urratsak, edozein tokitan eta edozein dela ere irakurtzen ari diren testua.

Bukatzeko, airearen kutsadura saihesteko edo behintzat gutxitzeko egin daitekeenaren inguruan mintzatuko gara.

46. Kiotoko protokoloa sinatu, zertarako?

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 77. or.

Talde handian eta modu partekatuan irakurriko dugu Kiotoko protokoloari buruzko erreportaje hau. Helburuak, irakurketa-estrategiak lantzea eta testu bat ulertzeko bidea ikasleei erakustea da eta ingurumenaren kontserbazioaren aldeko jarrera bultzatzea bestetik.

Lau rol jarriko ditugu martxan, irakurlearena, jakintsuarena, kazetariarena eta galdetzailearena. Jakintsuaren lana errazteko irakasleak hurrengo galderak proposatu ditzake:

-Zein kalte ekarri dezake lurra planetaren berotzeak?

-Zergatik uste duzue akordioa sinatzeko arazoak daudela? Zein izan daitezke herrialde horien interesak?

Agian galderak eta erantzuna ere irakasleak eman beharko ditu, baina berdin da, ez baikaude ikaslearen jakintza maila neurtzen, irakurketa-estrategiak lantzen baizik.

Jarduerarekin hasteko, irakurketa elkarkaria egingo dugu, gero, galdera hauek luzatuko dizkiegu ikasleei, estrategia hauen eraginkortasuna bermatzeko. Ea euren hitzak erabiliz galdera hauei erantzuteko gai diren.

- Zer da Kiotoko protokoloa? Zergatik du izen hori?

- Zein da Kiotoko protokoloaren helburua? Zergatik du helburu hori

- Nortzuk hartu dute parte?

- Zer gertatzen da gaur egun protokoloarekin? Zergatik?

47. Bertsoa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Irakurgaiak 3, 78. or./CDa, 28. pista/6. lan-koadernoa, 31. eta 32. or.

Bertsoa bakarka irakurtzeko aukera eman ostean, CDarekin batera abestuko dugu talde handian. Gero, ikasleek, bakarka edo zailtasunak dituztenak binaka jarrita, lan-koadernoko zortziko txikiaren inguruko jarduerak osatu beharko dituzte. Bukatzean, talde handian jarduera zuzendu eta osatutako bertsoak kantatzeari ekingo diogu.

Oharra: Zortziko txikia zortzi lerro dituen bertsoa da. Lerro hauek binaka doaz, lau puntu osatuz. Puntu bakoitzaren bukaeran, oina doa. Beraz, lau oin ditu. Lau oin horiek errimatu egin behar dute, azken silaba berdina edo antzekoa izan behar dute. Puntu bakoitzeko lehenengo lerroak 7 silaba ditu, eta bigarrenak 6. Teknikoki zortzikoa, bi koplaren batura bada ere, bertsogintzaren ikuspuntutik ez da hala. Koplak azken oinean du azken kolpea, hau da, laugarren lerroan. Zortzikoak ere azken oinean du azken kolpea, zortzigarrenean alegia, eta laugarrenean kolpea badu ere, txikiagoa da. Koplagintza eta bertsogintza bereizi beharko genituzke, hala ere, maila honetan ikasleak bi koplaren batura bezala ikusten badu zortzikoa, ez dago gaizki, baina komenigarria litzateke aipatutako hau adieraztea eta bereizketa hori egitea.

46. Buelako komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or.

Hasteko, ikasleei tartetxo bat emango diegu komikia irakur dezaten, eta ondoren, elkarriketa sortuko dugu, Tough-en hizkuntza funtzioak martxan jartzeko asmoz.

- *Lehenengo binetan Xabierrek esaera bat aipatzen du, zein da? zer esan nahi du horrekin?*
- *Maidar eta Xabier harrapatuta geratu dira igogailuan. Zuri gertatu al zaizu inoiz? Zer egin behar da horrelakoetan?*
- *Argi indarrik gabe, normalean egiten ditugun zein beste gauza ezingo genituzke egin?*
- *Ezagutzen al duzue abesten ari diren kanta? Hala bada, kantatu.*
- *Zertarako landatzen dute zuhaitza?*
- *Zer esan nahi du Kleok “ez utzi guztia zuhaitzen esku” esaten duenean?*

Elkarriketa bukatu ostean, nahi izanez gero, talde txikitan, pertsonaien paperak banatuz irakurketa dramatikoa egiteko aukera duzue. Beste aukera bat, ikasleek euren hitzak erabiliz, komikiko egoera dramatizatzea litzateke, inprobisazio moduko bat eginaz. Eta inprobisazio horretan, narratzaile moduko bat ere jar dezakegu, honen rola, jakintsuarena izango da, bere lana, komikian inplizituki adierazten den informazioa agerian jartzea izango da. Adibidez:

Kleo: “Oso ondo lagunak. Baina ez utzi guztia zuhaitzen esku, entzun?”

Jakintsua: Jakina, Kleok badaki horrelakoetan zer gertatzen den, zuhaitza landatu eta dena egina dagoela uste dugu. Bada ez! Gizakiok baditugu gure ardurak, hala nola...

47. Ba al zenekien?

Lan egiteko era: Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 3, 79. or.

Jarduera honetan irakasleak ez du parterik hartuko. Ikasleei, talde txikitan irakurtzeko aukera emango diegu eta baita, tarte bat, irakurgaian bertan jartzen duen zerbaitetaz hitz egiteko edota irakurgaiarekin zerikusia duen edozein gairi buruz hitz egiteko. Jarduera honen helburua gidatu gabeko mintza praktitarako gaia eta aukera ematea da.

48. Hitz gurutzatuak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 6. lan-koaderno, 33. eta 34.or.

Ikasleek bakarka, hitz gurutzatuak eta definizioei dagozkien jarduerak osatuko dituzte. Hitzak hauek dira: belauntzia-birikak-laborategia-surfa-parapentea-airea-atmosfera-oxigenoa-haizea-urakana.

Definizioei dagokienez, ikaslea definizioetan zehaztasunak eta argitasunak duen garrantziaz jabetzea nahi genuke. Horregatik, jarduera horren ostean, ahoz, definizioen zehaztasunaren garrantziaz jabetzeko asmakizunetara jolas dezakezue definizioetatik abiatuta: Adibidez: *Ea nork asmatzenden...*

- *Jolasteko tresna bat da. Borobila eta airez betea dagoena.* Baten batek globoa esango du. Beste batek hondartzako pilota. Hor dugu bada koxka, zehaztasun gehiago eman behar ditugu eta definizioa gehiago xehetu.
- *Kolore askotarikoa izan daiteke.*
- *Gure arnasaren airearekin puztu dezakegu.* Oraindik ez da nahikoa.
- *Edota, gas arinez bete eta atmosferara igo.*

49. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 36. orrialdetik, 39.era

Sintesi-orriek ikasitakoaren errepasoa egiteaz gain hainbat alderdi ebaluatzeko tresna bezala erabiltzeko aukera eskaintzea dute. Horregatik, ikasleak sintesi-orri hauek bete aurretik unitatean zehar ikusi eta ikasitakoaren errepasoa egitea aholkatzen dizuegu.

Sintesi-orrialdeetan unitateko alderdi jakin batzuk ebaluatuko ditugu baina horrez gain badira unitatean zehar behagarriak diren beste hainbat alderdi unitatearen bukaeran eta idatziz behatzerik ez daudenak. Batzuk, prozesua ematen ari den bitartean behatu beharrekoak direlako; beste batzuk burutzeko denbora luzeak behar dituztelako; beste batzuk idatzizko formaturik onartzen ez dutelako eta beste asko dagoeneko egin dituztelako eta berriz egiteak inolako zentzurik ez duelako. Sintesi honetan honoko edukiak berrikusten dira:

- Ingurumeneko kontzeptuak: atmosfera eta airea zer diren, aireak duen garrantzia bizidunengan, biriken garrantzia, haizea zer den, oxigenoa eta suaren arteko erlazioa (euren hitzekin azaltzeko aukera emanez).
- Ingurumeneko prozedurak: ikerketak burutzeko prozedura (talde-lana, materialen zainketa eta erabilera zuzena...), ikerketen bidez ondorioak ateratzea eta bizitzako egoerataraz aplikatzea, behaketa, azterketa...
- Jarrerak: parte hartzea, egiten ari diren ekintzarekiko interesa, ardura...

* Ingurumenari dagokionez, informazioaren trataera landu bada ere (kontzeptu-mapen osaketa eta ziklogramen osaketa eta interpretazioa) unitate honetan ez ditugu sintesian txertatu. Zuek hala nahi izanez gero, jarduera errazen bat eska diezaikezue. Adibidez, atmosferaren osaketako datuak eman eta eurek ziklograma osatzea. Edota definizio edo esaldi erraz bat edo beste emanez, kontzeptu-mapa eraikitzea.

* Hizkuntzako kontzeptuak landu badira ere (denbora antolatzaileak, ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak, argibide-testua) ez dugu kontzeptuaren azalpenik eskatzen sintesian, bai berriz, kontzeptu horiek aplikatzeko jarduerak, hau da prozedurak egiteko jarduerak; “gero” hitza ordezkatu testuan; “Atmosfera...” testuan ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak identifikatzea; eta azkenik, argibide-testua denborazko antolatzaileekin berreraikitzea. Bestelako prozedurak (ipuinaren planifikazioa eta ekoizpena, eta honen barruan, puntuazio marken erabilpena eta denbora antolatzaileena), aurretik burutu eta behatutzat ematen ditugu.

* Irakurmena ere behar-beharrezkoa dute sintesi jarduerok ongi burutu nahi badituzte. Eta noski, idatzizko ekoizpena ere egin beharko dute galderak erantzuteko eta azalpenak emateko.

* Arte hezkuntzari dagokionez, dramatizazio, plastika eta musikako jarduerak burutu ahala edukiak prozesuan bertan behatzekoak dira, nahiz eta hala nahi baduzue (aurrez landu baduzue behintzat) azken orrian haizeak eragiten duen mugimendua marrazteko aukera baduten.

Musikako lan-koadernoa

5.1 CRESCENDO ETA DECRESCENDO

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 5.1. fitxa/CDa, jarduerak, 28. pista

Bi ikur berri ageri zaizkigu oraingoan, intentsitatearekin zerikusia duten ikurrak biak ere. Italieratik jasotako hitzak dira baina musikaz ari garenean, mundu osoan erabiltzen dira.

Crescendoren ikurrak intentsitatea igoz, interpretazio ozenagoa egiteko agintzen digu. Suabetik hasi eta pixkanaka ozenago egiten joango gara. Beste era batera esanda: *pianotik* abiatuz *fortera* iritsi arte.

Decrescendorenak berriz guztiz kontrakoa adierazten digu. Intentsitatea jaitsi eta *piano*ago egiteko adierazten digu. *Fortetik* abiatuz *piano*ra iritsi behar dugula esan nahi du.

Sei adibide grabatu ditugu. Bi kasuetan *crescendo* ikurra ipini beharko dugu soinua bolumenez igotzen doalako. Beste bietan *decrescendo*rena, soinua jaitsi egingo delako.

Baina adi, badira beste bi adibide non intentsitatea ez den aldatzen. Bi kasu horietan musikan erabiltzen ez den marra zuzen hori egingo dugu.

1. Erlea gerturatzen: *Crescendo*
2. Erreka
3. Motoa urrutiratzen: *Decrescendo*
4. Orkestra: *Crescendo*
5. Telefonoa
6. Sopranoa: *Decrescendo*

5.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "BINBILI BONBOLO"

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 5.2. fitxa/CDa, jarduerak, 29. pista

Abesti aski ezaguna da hau, bost notaz osatua. Normalean, abestiak, lau, zortzi edo hamasei konpasetakoak izan ohi dira. Kasu honetan, hemezortzikoa da, ordea. Arrazoia zera da, bi konpas gehitu ditugula, partitura originalean agertzen ez direnak.

Dagoeneko badakizue zein prozedura jarraitu behar duzuen, beraz, ez dugu errepikatuko. Hala ere ez ahaztu "entrenamenduak" egitea.

5.3 KORTXEAK. A ZER PAREA!

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 5.3. fitxa

Orain arte, kortxeak binaka elkartuta ikusi ditugu. Bi hartza txikien ideiarekin lotzen genituen, beti elkarrekin, sorbaldatik helduta. Baina bakarka ere agertu ohi dira: ε ε

Batzuetan, musika idazten duenak nahi duelako eta besteetan beste erremediorik ez dagoelako. Adibidez, tartean beltz bat jarri duelako musika asmatu duenak, edo eta aurrerago ikusiko dugun bezala, punttuaren eraginez.

Lehenengo eskema ahoz irakurtzeko, orain arte bezala jokatu dugu. Bi kortxea banandurik agertzen badira ere, jarraian daudenez, "dilin" bezala irakurriko ditugu.

Baina bigarren adibiderako modu honek ez digu balio, "dilin" hori bitan zatitu beharko litzatekeelako. Hirugarren, bosgarren eta zazpigarren konpasetan, beltzak bikotea hautsi digu. Hau da, bi kortxeen tartean sartu zaigu beltza. Ondorioz, konplikatu samarra den arren, honela irakurri beharko genuke:

θ θ θ θ ε θ ε η
DAN DAN / DAN DAN / di DAN lin/ DOON

ε θ ε η ε θ ε η
di DAN lin/ DOON / di DAN lin/ DOON

Irakurketa erritmikoa musika-tresnen bidez egiten badugu, ez dugu aho korapilorik aurkituko.

5.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "TXORI TXIKI BAT"

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 5.4. fitxa/CDa, jarduerak, 31. pista

Abesti oso ezaguna horroko hori ere. "Zazpi jauzi" euskal dantza ezagunean oinarritutako melodia da.

Garrantzi handia du "entrenamendua" egiteak, izan ere oso aire bizia du berez kanta horrek eta hatzen arintasuna ezinbestekoa da. Hala ere mantso hasi eta ikasleek, beraiek eskatuko digute azkarrago jotzeko. Re, Do, Si, La eta Sol notekin ari gara lanean.

5.5 MUSIKARIEN TXOKOA: **IKILIKLIK**

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 5.5. fitxa

Badakizue nolako garrantzia duten berziklatu eta berrerabiltzeak. Hona hemen adibide bat: IKILIKLIK.

Lan-koadernoan duzue materialaren zerrenda eta egiteko jarraitu beharreko pauso guztiak. Zuen gustura edo baliabideetara egokitu ditzakezue materialak. Esaterako: hor aipatzen diren bolatxoaren ordeztu, botoi batzuk erabil daitezke.

Aukera izanez gero, egokia da benetako musika-tresna ikasleei erakustea. IKILIKLIK deitu diogun hau *tanbor de mango* delakoaren imitazioa da. Bataren eta bestearen soinuak alderatu ditzakegu. Kostuaz hitz egin dezakegu: zenbat balio ote du egiazko tresna horrek? Zenbat kosta zaigu gurea?

5.6. PUNTTUA

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 5.6. fitxa

Musika-hizkuntzan erabiltzen den ikur bat da punttua, eta izenak dion bezala puntutxo bat besterik ez da. Notaren eskuin aldean idazten da, eta nota horren balioa luzatu egin behar dela adierazten du. Baina luzera hori neurtu egiten da, ez da nahi hainbat luzatzen. Hor dago kakoa, punttuak, notaren balioaren erdia luzarazten du. Lan-koadernoan daude laburpen gisa zenbait adibide.

Baina guk, zerbait praktikoagoa egin beharko dugu haurrek punttuaren funtzioa uler dezaten. Beno, funtzioa ulertzea erraz samarra da, nota luzatu egiten du, eta kito! Neurtzerako garaian etorriko dira arazoak. Zenbat luzatu? Asko, gutxi, apur bat? Punttua duen notaren balioaren erdia luzatu behar da.

Jar ditzagun ikasleak binaka. Bakoitzari gaileta borobil bat emango diogu. Baina bikoteko bati *gometxa* bat ipiniko diogu punttua balitz bezala. Punttua itsatsia duen haurrak bere bikoteari gaileta erdia kendu beharko dio. Ondorioz, punttua duen ikasleak gaileta bat eta erdi jango ditu, besteak berriz, gaileta erdia. Ez ahaztu, eta bestela haurrek gogoraziko digute, punttua tokiz aldatzea, orain beste bikotekideari dagokio bere gaileta osoa eta bestearen erdia jatea.

Musikara egokituz, gaileta bat beltza izango da eta gaileta erdia kortxea. Kontzeptu hau ulertu dutenean, matematikatako aplikazioak egin daitezke. Hona hemen adibide bat:

- Etxean 10 pilota ditugu poltsa batean. Poltsa honi punttua ipintzen badiogu: zenbat pilota dauzkagu orain? $10 + (10/2) = 10 + 5 = 15$.

-Niri krocketak izugarri gustatzen zaizkit, eta nire amak 6 ematen dizkit beti. Baina gaur punttuarekin emango dizkidala esan dit. Zenbat krocketa jango ditut? $6 + (6/2) = 6+3 = 9$. A zer tripa-festa!

Modu honetako galdera asko egin daitezke, ikasle bakoitzari bana.

5.7 TXIRULA JOTZEN IKASTEN : "MIKELATXO"

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 5.7. fitxa/CDa, jarduerak, 33. pista

Punttua agertzen zaigu abesti honetan. Lehenengo eta bosgarren konpasetan. Beltzak punttua du bere eskuinean, beraz bat eta erdi balio du nota horren luzerak. Ondorioz, jarraian dagoen nota kortxea bat da eta erdia balio du. Biko neurriko konpasarekin ari gara lanean, beraz gogoratu beti biko balioa izan behar duela konpas bakoitzak.

Gainerakoan, kanta hau bost notaz osatua dago: Sol, La, Si, Do, Re. Kortxea asko ditu eta kanta alaia da.

Ez ahaztu ohiko "entrenamendua" egitea, jarraitu beharreko prozedura betikoa da eta lan-koadernoan adierazita dago.

5.8 TXALO ZAPARRADA

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 5.8. fitxa

Gogoan izango duzue 5. unitatea crescendo eta descrecendo zer diren aipatuz hasi ginela. Bada, amaitzeko ere antzeko ariketa bat egingo dugu.

Pianotik hasi eta fortera iritsiko gara eta segidan alderantziz. Crescendoa eginez iritsiko gara fortera, eta decrescendoa eginez iritsiko gara pianora.

Horretarako aitzakia modura euria hartuko dugu. Ur tantekin hasi/euri pixka bat/euri asko/zaparrada/erauntsia/okerrena pasa da, atertzen hasi du/atertu du. Soinu guztiak egiteko eskuak besterik ez ditugu behar. Hatz batez esku ahurra kolpatuz hasi (*piano*) eta txaloka (*forte*) amaitu arte jarraituko dugu, eta segidan alderantzizko bidea egingo dugu.

LAN-KOADERNOTIK APARTEKO ABESTIAK

AXURI BELTZA

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, jarduerak 30. pista

Axuri beltza ona duk baina

*xuria berriz hobe*a.

Dantzán ikasi nahi duen horrek

nire oinetara begira.

Gure folkloretik jasotako doinua eta dantza da hau. Guztiontzat ezaguna, baina dantza egiterakoan, agian, ez gara oso iaio ibiliko. Hala ere ez larritu! Gure helburuetako bat guztiok egiteko moduko dantzak proposatzea izan da beti. Axuri Beltza dantza, berez, ez da guk proposatzen dugun bezala, baina hura ez dugu guztiok ikasiko, eta hau, berriz, bai.

Oinarrizko erritmoa berdina da : θ θ ε ε θ
dan dan dilin dan

Jarrera eta mugimenduak:

Zutik eta korru bat osatuz jarriko gara guztiok eta, bat-bi, bat-bi, ibilian hasiko gara guztiok erritmo bera lortu arte. Denok batera goazenean, muqimendu txiki batzuk sartzen hasiko gara. Beti ere ibiltzeari utzi qabe:

-bat-bi, txaloka:	θ	θ	ε	ε	θ
-bat-bi, jira bat:	θ	θ	ε	ε	θ
-bat-bi, kraskinolaka:	θ	θ	ε	ε	θ
-bat-bi, jira bat:	θ	θ	ε	ε	θ

Hori da guztia. Bat-bi ibilian goaz, eta ibiltzeari utzi gabe egingo ditugu beste guztiak.

Gorputz espresioari dagokionez, seguruenik, hasieran kosta egingo zaigu, baina gorputzak malgutasun handiz mugitu behar du.

HERRIKO PLAZAN

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: CDa, jarduerak, 32. pista

Herriko plazan eta goiko kalean

neska-mutil denak jolasean.

Goizetik hasi eta, etxetik irten eta,

koadrilan bildu eta eskolako bideetan.

Herriko plazan eta goiko kalean

neska-mutil denak jolasean.

A

Nik era jolasean ibili nahi nuke!

Zertan?

Ahokorapiloka.

AKERRAK ADARRAK OKERRAK DITU

AKERRAK ADARRAK OKERRAK DITU

B

Nik ere jolasean ibili nahi nuke!

Zertan?

Oihuka eta oihartzunka.

BOLON BAT, BOLON BI,

BOLON BAT, BOLON BI, BOLONERA.

BOLON BAT, BOLON BI,

BOLON BAT, BOLON BI, BOLONERA.

A!

Loretan dabil tximeleta.

E!

Kantari nabil atez ate.

I!

Turutak tatari-tatari.

O!

Oiloak kokorokoroko.

U!

Oilarrak kukurrukurruku.

Kanta honen helburu bakarra kantatzea da, kantatuz gozatzea, kantatuz ongi ahoskatzen saiatzea eta kantatuz ongi pasatzea.

A eta B bezala markatuta dauden zati horietan erritmoarekin ari gara jolasean, eta aukera polita da taldeka jolas hori egiteko. Talde batek: "A!" Eta besteak erantzun, "Loretan dabil tximeleta!" Eta abar.